

Sagarrondotik '06: Ohitura, musika eta kultura

IRITSI DA JADA URTEROKOA BIHURTU DEN
HITZORDUA. PREST DIRA UPELAK. PREST SAGARDOA.
PREST MUSIKA. HEMEN DA SAGARRONDOTIK

ARIANE KAMIO

Sagarrondotik upelera. Upeletik kalera. Sagarrondotik jaialdiari hasiera emango zaio heldu den ostiralean. Hiru eguneko festa izango da Buruntzaldeako herrietan (Gipuzkoa). Sagardoaren kultura hobeto ezagutu, eta Euskal Herriko zein nazioarteko taldeen musikarik onenaz gozatzeko aukera paregabea izango da Hernaniko karpa erraldoian.

THC. Irufietik Euskal Herri osora zabaldutako zazpikotea. 2004an argitaratutako 'Homonime' lanarekin eman zuten arrakastarako jauzia. Estilo desberdinen fusioak entzuten dira beraien abestietan; funk doinuek house eta drum & bass erritmoekin bat egiten dute. Halaber, hip-hop, jazz eta perkusio afrikarraren ukituekin margotzen dituzte euren kantuak.

SORKUN. Rock munduan Kashbad taldearekin eman zuten ezagutzera bere ahotsa Sorkunek. Behin taldea desagertuta, Fermín Muguruzarekin jarraitu zuen musikarekin jolasean. Errenteriako kantariak 2002an eman zion hasiera bakarkako ibilbideari 'Onna' diskoarekin. Izandako arrakastaren harira, 'Duna' bigarren bakarkako lana kaleratu zuen iaz. Zuzeneko emanaldietan Neubat taldeko kideak izango ditu lagun agertokietan. Rocka eta musika elektronikoaren elkarketaren emaitzaz gozatzeko aukera, ostiralean, Hernaniko karpa erraldoian.

**ESTILO
DESBERDIN-
ETAKO
MUSIKAK
GIROTUKO
DU JAIALDIA**

CHAMBAO. Flamenco-Chill bezala ezagutzen da beraien musika. Andaluziako taldeak, beraien lurraldeko iragarki baten doinuari esker ikusi zuten arrakastaren argia. 'Ahi estas tu' kantuarekin, hain zuzen ere, Flamenkoaren doinu lasaienez jantzen dira bizimodu gordinean oinarritutako letrak. Komertzialtasunetik ihes eginez, bigarren lan luzea kaleratu zuen taz talde andaluziarak; 'Pokito a poko'. 2002an 'Flamenco chill', sei kantuz osatu-

tako lana plazaratu ostean, 2004an argitaratu zuten beraien lehenengo lan luzea; 'Endorfinas en la mente'. Iaz kaleratutako diskoan, flamenkoaren ukitu lasaia alboan utzi gabe, erritmo biziagoak eta ukitu desberdinak txertatu dituzte.

LOQUILLO Y TROGLODITAS. 1987an eza-gutzera emandako irudiak bizirik jarraitzen du oraindik. Loquillok rockaren ari-ma hilezkorra islatzen du. Bartzelonatik mundu osora zabaldutako kantaria eraberrituta igoko da Hernaniko eszenatokira. Rockaren aurpegirik dotoreena erakusten saiatzen bada ere, noizean behin denboran atzera egiten du, eta bizitzako egoerarik gogorrenak erakusten ditu bere kantuetan.

PAL KELI. O'Funkillo Sevillako taldearen desagertpenaren ondorengoak direla esan daiteke. Abeslariarekin izandako arazoak alde batera utzita, gainontzeko kideek taldea eraberritu dute, eta baita ordezko kantaria aukeratu ere. Pal Keli da beraien izen berria. O'Funkilloren kantu berdinak abesten dituzte, eta estilo berdina mantentzen dute. Funka oinarri hartuta, musika estilo desberdinen zertzeladez bustitzen dituzte beraien abestiak. Izen desberdinarekin, baina izaera berarekin ekarriko dituzte Hernanira penintsulako hegoaldean errotutako kantuak.

MORODO & RANKING SOLDIERS. Ruben Morodo madrildarra da hip-hop doinuei ahotsa jartzen dien musikaria. Madrilo OZM taldearekin sartu zen musikaren munduan oso gazte zela. 2001ean argitaratu zuen bere lehen diskoa; 'OZMLstay!'. 'Cosas que contar' izan zen bere bigarren diskoaren izena. Lana kaleratuko zion disketxerik aurkitzen ez zuenez, berak sortu zuen bere disketxe propioa, Discos Taifa izenekoa. Hip hop erritmoak nagusi diren arren, reggae kantarien eragin handia du Morodok bere abestietan. Oraingoa ez da Euskal Herrira egingo duen lehen bisita izango. Sound system moduan etorri izan

bada ere, Sagarrondotik jaialdian Ranking Soldiers bandakoak izango ditu lagun agertokian.

BERRI TXARRAK. Hiruko nafarra 'Jaio. Musika. Hil' iaz argitaratutako diskoarekin indarberrituta agertuko da Hernanin. Aitor oreja gitarrajoleak taldea utzi zuenean zulantza ugari piztu baziren ere, Le-kunberriko musikariek kalitatez betetako musika egiten dutela erakutsi dute. AEBetan, Nikaraguan, Mexikon eta Katalunian kontzertuak eskaini ostean, gogotsu datoz Sagarrondotik jaialdira.

CELTAS CORTOS. Taldeak bere lanak

bertan behera utzi bazituen ere, herriro elkartuta igoko dira Celtas Cortos taldeko kideak Hernaniko agertokira. Jesus Cl-fuentesek taldeak alde egin bazuen ere, bera ere sagardo jaialdian izango da. Du-ela 22 urte Valladolideko Delicias institu-tuan hasitako ibilbidea oraindik amaitu gabe dagoela erakutsi nahi dute. Musika zelta Euskal Herriraino ekarriko dute hel-du den larunbatean.

BETAGARRI. Gasteiztik indartsu dato-rreren taldea. Beraien sorreratik 10 urte baino gehiago pasa diren arren, Hernani-ko karpa erraldoia hankaz gora jartzeko prest datoz. 'Arnasa hartu' da talde araba-rraren azken diskoaren izena. Nolanahi ere, 2004ko udaberrian zuzeneko kontzer-tuak biltzen dituen ikus-entzunezkoa ar-gitaratu zuten. Ska, rock eta reggae erritmoez gozatzeko aukera, larunbate-an, sagardoaren jaialdi handian.

HAMLET. Living Colour taldeak antola-tzaileei kale egin ostean, Hamlet talde madrildarra ekartzea erabaki dute. Bos-kote ezagun horrek gitarren hotsik bizi-nekin jantziko dute Hernaniko karpa erraldoia. Intentsitate handiko kantuak biltzen ditu Hamletek bere bilduma guz-tietan. 1987an hasitako ibilbidea amaitu gabe dago oraindik. Iaz kaleratu zuten az-ken diskoaren arrakasta berrestera datoz Hernanira.

